

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

**20.000 gizon eta 5.400 emakume gehiagok
dute enplegua**

**298.500 pertsona aritu dira HEHn aldi baterako
kontratuarekin edo kontraturik gabe lanean,
aurreko hiruhilekoan baino 7.400 gehiago**

**Lan erreformak ez du behin-behinekotasuna
murrizteko balio**

**PFEZaren erreformak goi errentei eta kapitalari
mesede egiten die**

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATUA	2006	12 HILE LEHEN.	2005 BUK.
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (16-65 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA)					
JARDUERA TASA	%	06 III	70,9	70,3	71
" 15-EBn	%	06 II	71,5	71	71,2
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	06 III	1.242.800	1.216.200	1.227.500
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	06 III	1.024.600	998.600	1.006.900
ALDI BATERAKO TASA	%	06 III	29,1	30,4	31,2
" 15-EBn	%	06 II	14,6	14,1	14,5
BIZTANLERIA LANGABETUA	KOPURUA	06 III	50.800	64.500	66.900
LANGABEZI TASA	%	06 III	3,9	5	5,2
" 15-EBn	%	06 III	7,4	7,9	7,8
GAZTEEN LANGABEZI-TASA	%	06 III	8,7	12,7	13
" 15-EBn	%	06 III	16,5	16,8	17
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA	%	06 III	4,8	6,3	6,1
" 15-EBn	%	06 III	8,4	8,9	9
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	06 URT-URR	907.428	857.795	1.036.103
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	06 URT-URR	82.422	65.067	76.776
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	06 URT-EKA	233	203	526
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	06 URT-EKA	4.455	5.103	10.165
LAN ISTRIPUAK					
BAJADUN LANGILEAK	KOPURUA	06 URT-IRA	48.244	49.904	66.759
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	06 URT-IRA	460	584	769
ESKAINNTZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	06 URT-IRA	4,2	2,7	4
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	06 URT-EKA	2,7	2,3	-0,1
BPGa EAEn	% ALD.	06 III	4,2	4	4,3
BPGa NAFARROAn	% ALD.	06 III	3,9	3,3	3,3
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	06 II	4	4,2	3,3
BPGa 15-EBn	% ALD.	06 III	2,6	1,8	1,9
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	06 URRI	2,5	3,5	3,7
" 15-EBn	%	06 IRA	2,3	2,1	2,1
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.					
Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE.					
2006/11/15ean eguneraturiko informazioa			104. zbk. Egoeraren Azterketa 2006ko Abendua		



Aurkibidea

SARRERA	3
GIZARTE ETA EKONOMIA	
EGOERAREN AZTERKETA	4
1. Emakumeen kolektiboa: jarduera-tasa eta enplegu-tasa 15-EBkoen oso azpitik	4
2. Lan-erreformak ez du eraginik izan behin-behinekotasunean.....	4
3. Langabezia: oso emaitza ezberdinak iturri batetik bestera..	5
4. Sinatutako kontratu gehienak aldi baterakoak dira, oraindik ere	5
5. Lan-itripiak	6
6. Banaketa eta ondorioak alde batera utzita, ekonomiak gorantz jarraitzen du	6
7. Prezioak	7
PUNTAKO GAIAK	8
PFEZ-ren erreforma EAE-n:	
ELAren balorazioa	8
1. Aldaketaren propaganda eta egia: goi-errenten eta kapital-errenten mesederako erreforma	8

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jarduerearen Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren Azterketaren zenbaki honetan, Hego Euskal Herriko enpleguari eta langabeziari buruzko 2006ko hirugarren hiruhilekoko datuak aurkezten ditugu. Datuok, batez ere, lan-erreformak aldi baterako kontratazioan izan duen eraginari buruzko ondorioak ateratzea ahalbidetzen digute, ondoriook behin-behinekoak badira ere. Propaganda ofizialetik harago, hauxe da errealitatea: orain gertatutakoaren eta aurreko hiruhilekoetan jazotakoaren artean, ez dago inolako diferentziarik.

Bestalde, Puntako Gaien atalean, EAEko Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak PFEZan proposatutako erreformari buruz ELAk egiten duen balorazioa argitaratzen dugu: gardentasunik eza eta mozkin gehiago errenta handientzat eta kapital-errententzat. Bat dator, guztiz, instituzio horien ibilbidearekin.

* Txosten hau 2006ko azaroaren 15ean eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

Gizarte eta ekonomia egoeraren azterketa

1. Emakumeen kolektiboa: jarduera tasa eta enplegu-tasa 15-EBkoen oso azpitik

Hego Euskal Herriko (HEH) biztanleriaren **jarduera-tasa** %70,9koa izan da 2006ko hirugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat altuagoa. Era berean, 100 gizonetzatik 80,5 izan dira soldatako lanpostua izan dutenak edo modu aktiboan bilatu dutenak (aurreko hiruhilekoan baino 1,4 puntu gehiago) eta 100etik 61, emakumeen kasuan (2006ko bigarren hiruhilekoan baino 0,6 puntu gehiago).

Kopuru horiek *Europakoekin* alderatzean ikus dezakegunez, HEHko jarduera-tasa orokorra 15 estatu kideko Europar Batasuneko (15-EB) (%71,5) baino 0,6 puntu baxuagoa da; gizonen tasa, aldiz, Europakoa (%79,1) baino 1,4 puntu altuagoa da, eta emakumeena europar eremuko (%63,9) baino 2,9 puntu baxuagoa. Beraz, HEHko jarduera-tasa Europakoaren antzekoa da, gizonen kasuan altuxeagoa eta emakumeenean baxuagoa delarik ere.

Enplegua dutenak 1.242.800 lagun izan dira: 720.700 gizon (%58) eta 522.200 emakume (%42). Lanean dabilen biztanleriak 25.400 laguneko hazkundera izan du bigarren hiruhilekoarekin erkatuta. Hazkunde hori, gizonen kolektiboan jazo da batez ere, eta askoz txikiagoa izan da emakumeenean; zehazki 20.000 gehiago izan dira lanean ibilitako gizonak, eta 5.400 gehiago, lanean ibilitako emakumeak.

Enplegu gehien dituen *sektorea* zerbitzuena izan da berriro, 784.000 lanposturekin, eta horren ostean, industria, 321.700 lanposturekin, eraikuntza, 112.700ekin, eta nekazaritza eta arrantza, 24.500ekin. Sektore horietan, hurrenez hurren, lanean dabilen biztanleria osoaren %63k, %26k, %9k eta %2k jardun dute. Bilakaerari dagokionez, lanean dabilen pertsona gehien hartu dituen sektorea industria izan da: 19.400 langile, hain zuzen ere; ondoren, zerbitzuen sektoreak, 12.800 langile gehiago hartu ditu, nekazaritzak eta arrantzak, 1.700, eta eraikuntzak, 1.600.

Enplegu-tasa (soldatako lana duen biztanle ehuneko) %68,1ekoa izan da, hots, 15-EBkoa

(%65,9) baino 2,2 puntu handiagoa. Gizonen enplegu-tasa (%77,9) 15-EBkoaren (%73,4) gainetik dago, eta emakumeena (%58,1) Europakoa (%58,5) baino beheraxeago.

ENPLEGU-TASAK: GIZONENA, EMAKUMEENA ETA GUZTIZKOA. HEH (2006KO III. HIRUHIL.) ETA 15-EB (2006KO II. HIRUHIL.)

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
HEH	77,9	58,1	68,1
15-EB	73,4	58,5	65,9
ALDEA	4,5	-0,4	2,2

Iturriak: Eustat, IEN, Eurosta

2. Lan-erreformak ez du eraginik izan behin-behinekotasunean

Soldatapeko langileak 1.024.600 izan dira, eta horietatik gizonak 575.600 (soldatapeko biztanleriaren %56,2) eta emakumeak 448.700 (%43,8).

Soldatapeko biztanleriak 35.300 laguneko hazkundera izan du aurreko hiruhilekoaren aldean; hazkundera 24.800 lagunekoa izan da gizonen kasuan, eta 10.400ekoa emakumeenean. Soldatapeko biztanleria lanean dabilen biztanleria baino gehiago hazi da; beraz, soldatapekoak ez diren enpleguen kopurua urritu egin da hiruhilekoan zehar.

Enplegua duten 100 pertsonatik 82,4 soldatapekoak izan dira: %79,9 gizonen kasuan, eta %85,9, emakumeenean. Hortaz, soldatako lanean, emakumeek dute presentzia handiagoa.

Hirugarren hiruhilekoan, 298.500 pertsona aritu dira HEHn **aldi baterako kontratuarekin edo kontraturik gabe** lanean, hau da, aurreko hiruhilekoan (291.100) baino 7.400 gehiago. Hirugarren hiruhilekoan gertatutakoak uztailearen 1ean indarrean hasi zen eta, ustez, aldi baterako kontratuak murrizteko helburua zuen lan-erreformari buruzko lehenengo balorazioa egiteko aukera ematen digu: behin-behineko baldintzetan lan egiten duten pertsonen kopurua hazi egin da.

Behin-behinekotasun tasa %29,1ekoa izan da, hots, aurreko hiruhilekoko baino 0,3 puntu baxuagoa. Hortaz, behin-behinekotasun tasak




erreformaren ostean izan duen aldakuntza aurreko hiruhilekoetan jazotakoaren antzekoa izan da, orain arte ere hamarren batzuk gora edo behera egin baitu. Izan ere, EAEn behin-behinekotasun tasa %28,9tik %28,4ra jaitsi delarik, Nafarroan %31,3tik %31,6ra igo da.

Gizonen behin-behinekotasun tasa %25,3koa izan da (aurreko hiruhilekoan baino 0,3 puntu baxuagoa) eta emakumeena %34,1koa (0,1 puntu baxuagoa). Hortaz, sinatu zutenek (CCOOK, UGTk, Espainiako Gobernuak eta CEOEk) besterik iragartzen bazuten ere, erreformak ez du behin-behinekotasuna murrizteko balio.

Horrela, 15-EBrekiko, aldagai horretan zeuden diferentziek berdin segitzen dute, Europako behin-behinekotasun tasa (%14,6) hemengoaren erdia baita, gizonen kasuan (%13,9) 11,4 puntu gutxiagokoa eta emakumeenean (%15,5) 18,6 puntu baxuagoa delarik.

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASAK: GIZONENA, EMAKUMEENA ETA GUZTIZKOA. HEH (2006ko III. HIRUHIL.), 15-EB (2006ko II. HIRUHIL.)



Iturriak: Eustat, IEN, Eurostat

3. Langabezia: oso emaitza ezberdinak iturri batetik bestera

Enplegua aztertzeko erabili ohi ditugun iturriak EAeko Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkesta (BJA) eta Nafarroako Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (BAI) dira. Iturri horien arabera, 50.800 langabe egon dira.

Baina inkesta horien orde, INEMen zerrendetan apuntatuta dauden langabeei buruzko esta-

tistika erabiliz gero, emaitzak oso bestelakoak dira. Zehazki, INEMen arabera, 96.408 lagun daude langabezian, hau da BJAREN eta BAIAREN arabera baino 45.608 gehiago. Beraz, alde itzela dago iturri batetik bestera, baten emaitza bestearenaren ia bikoitza baita.

LANGABEAK. EAE, NAFARROA ETA HEH (2006ko III. HIRUHIL. ETA IRAILA)

	EAE	NAFARROA	HEH
BJA/BAI			
(2006ko II. HIRUH.)	36.200	14.600	50.800
INEM (2006ko IRAILA)	76.409	19.999	96.408
ALDEA	40.209	5.399	45.608

Iturriak: Eustat, IEN, INEM

BJA eta BAI inkestek INEMek baino kopuru handiagoak eman izan dituzte Hego Euskal Herriko langabeei buruz. Iturri guztietan egin diren aldaketen eraginez, BJAk eta BAIk emandako langabe kopuruaren urripen nabaria egon da, INEMena, berriz, igo egin delarik. Horrexegatik dira BJAREN eta BAIREN kopuruak INEMENAK baino askoz txikiagoak.

Egitate horiek **zalantza eragiten dute** erabiltzen ditugun kopuruaren **fidagarritasunari buruz**. Izan ere, langabezia-prestazioa hartzen duten pertsonak 55.100 dira (42.600 EAEn eta 12.500 Nafarroan), hau da, langabeen kopuru teorikoa baino gehiago. Hori ezinezkoa da.

Langabeziari buruz egin ohi dugun analisia jarraituz, **langabezia-tasa** %3,9koa izan dela ikus dezakegu, hau da, aurreko hiruhilekoko baino 0,6 puntu baxuagoa eta 15-EBkoa (%7,4) baino 3,5 puntu beheragokoa. Gizonen langabezia-tasa %3,3koa izan da, hots, Europakoa (%6,5) baino 3,2 puntu baxuagoa; emakumeena %4,8koa, alegia, europar eremukoa (%8,4) baino 3,6 puntu gutxiagokoa, eta gazteena %8,7koa, hau da, 15-EBa (%16,5) baino 7,8 puntu beheragokoa.

4. Sinatutako kontratu gehienak aldi baterakoak dira, oraindik ere

Urtarrietik urrira bitarte, 907.428 lan-kontratu sinatu ziren, hau da, 2005eko tarte berean baino 49.633 gehiago. Kontratu horietatik

82.422 (gutzizkoaren %9,1) mugagabeak izan dira. Horren arabera, igoera txiki bat gertatu da kontratu mota horretan, 2005eko epealdi berearekin konparatuta, orduko kontratu mugagabeak %7,6 izan ziren eta. Hala ere, sinatutako kontratuen **%90,9 aldi baterakoa** da, oraindik ere, eta aurrerapauso txiki bat eman bada ere, iruzurra oso handia da oraindik kontratazioan. Behin-behinekotasun tasak aztertzean ikusi dugunez, kontratu mugagabeek guztizkoan izan duten gehikuntzak ez du behin-behinekotasunaren urripena eragin.

Hortaz, argi dago **langileen kaleratzea merkatzen duten erreformek ez dutela konponbiderik ekarriko**, eta neurriek beste norabide batean jo behar dute, hala nola behin-behinekotasuna justifikaturik ez duten aldi baterako kontratazioei merezi besteko isuna ezartzen dieten lan-ikuskapenak egitera, esaterako.

Enplegu-erregulazioa

2006ko urtarriletik ekainera bitartean, enplegu-erregulaziorako 233 espediente baimendu dira, 2005eko epealdi berean baino 30 gehiago, alegia. Espedienteok 4.455 langilerengan izan dute eragina, hau da, aurreko ekitaldian baino 648 langile gutxiagorengan. Beraz, enplegu-erregulaziorako espedienteak gehiago izan badira ere, langile gutxiagok jasan dute haien eragina.

5. Lan-istripuak

2006ko lehenengo hiru hiruhilekoetan, baja eragin duten 48.244 lan-istripu jazo dira, hau da, 2005ean baino 1.660 gutxiago. Hildakoren bat eragin duten istripuak 58 izan dira (31 gutxiago), eta istripu larriak 402 (93 gutxiago). 2006ko lehenengo 9 hilabeteetako istripuen kopuruan, beharpen txiki bat ikus daitekeen arren, urrian eta azaroan gertatutako istripuen kopurua aintzat hartuta, ez dirudi urtealdi osoaren balantzea hain positiboa izango denik.

6. Banaketa eta ondorioak alde batera utzita, ekonomiak gorantz jarraitzen du

EAEko Produkzio Industrialaren Indizea %4,2 igo da urtarriletik irailera, hau da,


2005eko epealdi berean (%2,7) baino askotxo gehiago.

Nafarroako zifra aztertzean ikusten dugunez, **Jarduera Industrialaren Indizea** %2,7 hazi da urtarrilaren eta ekainaren artean, alegia, 2005ean hazi zena (%2,3) baino gehiago, kasu honetan ere.

EAEko hazkundera bere ingurukoa baino handiagoa izaten ari da, bere **Barne Produktu Gordina (BPG)** %4aren gaintik hazi baita urteko lehenengo hiru hiruhilekoetan (%4,4, %4,2 eta %4,2, hurrenez hurren). *Nafarroan* sortutako aberastasuna ere nabarmenki handitzen ari da (%3,7, urteko lehenengo bi hiruhilekoetan, eta %3,9 hirugarrenean).

Espainiako Estatuko BPGak %3,7ko hazkundera izan du lehenengo hiruhilekoan, eta %4koa, bigarrenean. EAEko, Nafarroako eta Espainiako Estatuko hazkunderak 15-EBkoa baino handiagoak izaten ari dira, Europako BPGa %2,2 eta %2,7 hazi baita, hurrenez hurren, urteko lehenengo bi hiruhilekoetan (eta %2,6 hirugarrenean).

BPGaren URTEARTEKO GEHIKUNTZAK (ALDAKUNTZA %). EAE, NAFARROA, ESPAINIAko E., 15-EB



Iturriak: Eustat, IEN, INE, Eurostat

Ekonomiaren hazkundera buruz, aintzat hartu beharreko bi alderdi daude. Bata hazkunderaren **banaketa** da, aurtan hainbat argitalpenetan adierazi dugunez. Zehatz esateko: egiaztatu ahal izan dugunez, banaketak bilakaera onuragarria izan du enpresaburuen errenten kasuan, baina lan-errentei banaketan dagokien zatia, ordea, txikiagoa da orain (2005ean, lan-erren-



tek 1993ko partaidetza bera izan balute, 3.510 milioi euro gehiago egokituko zitzaizkien). Beraz, behar-beharrezkoa da planteatzea zer den garrantzitsuagoa: hazkundera bilatzea ala banaketa hobea lortzeko borrokatzea.

Bestalde, hazkunde horren **muga eta ondorioak** ere hartu behar dira kontuan. Hots, noraino hazi behar dugun zehazteko gogoeta egin behar da. Izan ere, baliabide naturalen eta ingurumenera doazen igorpenen bizkar lortzen da hazkundera, eta gero eta alarma gehiago pizten ari diren eta gure bizi-kalitatean zuzeneko eragina duten ondorioak eragiten ditu. Inork ez du zalantzan jartzen garapen handiagorantz aurreratzeko jarraitu beharra, baina, horretarako, ez da derrigorrez hazkunde ekonomiko handiagorik behar.


7. Prezioak

Urrian, urtearteko KPIa %2,5ekoa izan zen, aurreko hilabeteko adierazle beraren aldean jaitsi ondoren (irailean %2,9koa izan baitzen). Beheranzko joera hori uztailean hasi zen gertatzen, prezioen urtearteko gehikuntza %4koa

zelarik. Bilakaera horren azalpen pisutsuena petrolioaren eratorriek hilabete hauetan izan duten beheranzko joera da.

Europar Batasunean, urtearteko KPIa %1,7ko izan zen urrian. Europarekiko prezio-aldea, urritu bada ere, oso handia da oraindik ere.

PREZIOEN URTEARTEKO GEHIKUNTZAK (ALDAKUNTZA %). ESPAINIAKO ESTATUA, 15-EB



Iturriak: INE; Eurostat

PFEZ-ren erreforma EAE-n: ELAren balorazioa

Sarrera

PFEZ aldatzea erabaki dute EAeko foru-ogasunek eta Eusko Jaurlaritzak. Ohiko ari dira bihurtzen, honenbestez, zerga-legediaren aldaketak, urtero aldatzen baitute PFEZren atalen bat. Hainbatean behin, berriz, aldaketa sakonagoren bat ere proposatzen dute. Oraingoan, adibidez.

Etengabeko aldaketa-prozesua dugu hau, eta, beste alor batzuetan bezala (lan-erreformak, pentsio-sistemarenak...), mailaka egiten dira aldakuntzak, aurreko urratsarekiko jauzi handiegirik egin gabe betiere. Gizarteari, berriz, aldaketak egitea beste irtenbiderik ez dagoela sinetsarazten diote. Epe luzera, ikusgarriak dira prozesu horren emaitzak.

PFEZren egungo aldaketa hau aurreko erreformenten bide beretik dator: goi-errentei egiten die mesede, eta ez ditu berdin tratatzen laneko errentak eta gainerakoak.

Horrenbestez, honoko ezaugarriak dituen egoerari sakondu nahi da:

- Mailakotasuna, progresibotasuna kentzen zaie kapital-errentei (interesak, higiezin irabaziak, gainbalioak...) eta % 18ko zerga finkoa ezartzen zaie.
- Murriztu egiten da zergaren tarifa orokorren mailakotasuna: % 48tik % 45era jaisten da tasarik altuena, % 15etik 23ra igotzen da baxuena, eta gutxitu egiten da zergaren maila-kopurua.
- Dagozkien baino diru-sarrera askoz txikiagoak aitortzen dituzte enpresa eta profesional-jardueren errentek, zerga-iruzurrari esker.

Aldaketa dela eta, 236,7 milioi euro gutxiago jasoko dira urtean. Bien bitartean:

- BPGren % 31koa da zerga-presioa EAEn; Europako Batasuneko batezbestekoa, berriz,

% 39,6koa. EAEn batezbesteko horretara iristeko, orain baino 4.586 milioi euro gehiago bildu beharko liriteke urtean. Europatik urrunduko egiten gaitu erreformak, beharrezko dugun konbergentziaren bidean aurrera eramanez beharrezkoak.

- Premia sozial larriak uzten dira estaldurarik gabe. Erabaki politiko bat dela eta jaso gabe uzten dira 236,7 milioi euro, baina, bestetik, oso diru gutxi erabiltzen dute erakundeek politika sozialetarako; etxebizitza-alorrean, adibidez, 177 milioi besterik ez 2006an. Erabaki politiko horrek ez-ikusiarrena egiten die gizartearen premiei, eta goi eta kapital-errentei egiten die mesede. Hortaz, azken urteotan bezala, hazi egingo da babes sozialaren defizita Europa Batasunarekin alderatuta (gaur egun, BPGren % 19,2 EAEn; EBn, % 28,3).

Arbuigarria da, bada, aldaketaren edukia, eta halaxe da hura egiteko modua ere. Urte osoan aritu dira ezkutuan elkarrekin eztabaidatzen Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Zerga Koordinazioko Organoan. Elkarrekin ados jarri ondoren (azaroaren 22ra arte ez dute horren berri eman), hilabeteren buruan onartu nahi dute erreforma Batzar Nagusietan, eztabaidarako eta kontsultarako batere astirik eman gabe. Sistema demokratikoek eskatzen dituzten gutxieneko baldintzak ez dituzte betetzen, bizkarra ematen baitiote eztabaida publikoari, politiko eta sozialari, EAeko erabakitzeko-alar nagusietako batean gainera. Eraiki nahi den gizarte-eredua finkatzeko ezinbesteko da, bestalde, erabakitzeko ahalmen hori.

Berdina esan daiteke Sozietatei Zergari buruz ere, gizarteak ez baitu urte bukaera orduko burutuko dizkioten aldaketen berri.

1. Aldaketaren propaganda eta egia: goi-errenten eta kapital-errenten mesederako erreforma

Lorturiko hitzarmena aurkeztu ondoren, propaganda-kanpainari ekin diote foru-aldundiek. Aldaketa denontzat dela onuragarri diote, batez ere behe-errententzat. Benetako egoera, ordea, oso bestelakoa da.



a) Aldaketa ez da denontzat mesedegarri

Eztabaidatu egin beharko litzateke 'mesedegarri' hitzaren esanahia. Nolanahi dela ere, badi-rudi hau esan nahi digutela: erreformari esker, denok ordainduko dugu gutxiago. Ikusiko dugunez, ordea, kontuak ez dira horrela.

Mailakakoa, progresiboa da PFEZ; hau da, zenbat eta altuagoak diru-sarrerak, orduan eta handiagoa ordaindu beharreko zerga-portzentajea. Ikuspegi berari atxikiz, errenta baxuenak dituztenek ez dute zergarik ordaintzen, gutxieneko diru-sarrera behar baita PFEZ ordaintzeko.

EAEko 100.000 langile baino gehiagok (lan-errentak aitortzen dituztenen % 11,8) ez dute PFEZ ordaintzeko adina irabazten. Beraz, 0 euroko kuota dute zerga horretan. Noski, langile horiei ez zaie jaisten PFEZ.

Errenta baxueneko herritar horiei zuzen-zuzenean egingo die kalte erreformak. Izan ere, zenbat eta gutxiago bildu, orduan eta txikiagoa gastu soziala. Esan beharrik ez dago gizarteko sektore hori dela politika sozial birbanatzaileen premia handiena duena.

b) Goi-errentei egiten die mesede aldaketak


Behe-errentei egiten diela mesede aldaketak diote foru-ogasunek. Datuek, ordea, besterik diote:

✓ Goi-errentek aurrezten dute diru gehien

236,7 milioi eurokoa da aldaketaren kostua, ogasunen kalkuluen arabera.

Diru-sarrera baxueneko herritarren % 15ek 3 milioi euro besterik ez ditu 'aurrezten' (aldaketaren guztizko kostuaren % 1,3). Diru-sarrera altuenak dituzten herritarren % 4,7k, aldiz, 35 milioi euro gutxiago ordainduko ditu, hots, erreformaren guztizko kostuaren %14,7.

ERRENTA-AITORPENAREN EGILE ETA AURREZPENAREN %ak OINARRI LIKIDAGARRIAREN ARABERA



Iturria: Gipuzkoako Aldundia

✓ **Tarifa-aldaketak lehen bezala uzten ditu lan-errentako 7.000 euroko oinarri likidagarria dituztenak. Aldiz, 100.000 euroko oinarria dutenei, foru-ogasunek 1.492 euro ematen dizkiete oparitan.**

Hona hemen zergaren tarifa orokorraren berrikuntzak, guztiak ere haren mailakotasuna murrizten dutenak:

- Gehieneko tipo marjinala % 48tik % 45era jaitsi da.
- Gutxieneko tipo marjinala % 15etik % 23ra igo da.
- 5etik 4ra jaitsi da tarifaren maila-kopurua.

1998an %56koa zen tipo marjinalik altuena. Onartu nahi den %45, beraz, hura baino 11 puntu baxuagoa da. Denboran zehar aldaketa jarraiek PFEZaren izaera eta norabidean dakarten aldaketaren adibide bat dugu hau.

Soldatapeko langileen egoera aztertuz gero, hona hemen ondorioak: urtean 7.000 euroko oinarri likidagarria dutenek ez dute PFEZrik ordaintzen, ez indarrean dagoen zergarekin ez proposamen berriarekin. Hortaz, ez dute euro bakar bat ere aurrezten. Bestalde, 28.000 euro-rarte irabazten dutenek 130 bat euro gutxiago ordainduko dute urtean.

Urtean 60.000 eurotik gorako diru-sarrerekin hasten da nabaritzen aldea, tipo marjinala %

48tik % 45era jaitsi izanaren ondorioz. Urtean 100.000 euroko oinarri likidagarria dutenek adibidez, 1.492 euro gutxiago ordainduko dute; 140.000 euroko oinarria dutenek, berriz, 2.693 euro gutxiago ordainduko dute zergatan.

TARIFA-ALDAKETAREN ERAGINA LAN-ERRENTETAN

OINARRI LIKIDAGARRIA (€)	AURREZPENA, URTEAN(€)
7.000	0
12.000	138
28.000	125
62.000	365
100.000	1.492
140.000	2.693

Iturria:ELA

Zergatan gutxiago ordaintzeari baderitzo 'mesedegarri', goi-errentei egiten die mesede PFEZren aldaketak. Errenta ertainak lehen bezalaxe geratzen dira, eta behe-errentek ez dute batere onurarik jasotzen.

c) Kapital-errentak mailakotasunik gabe uzten ditu aldaketak

%18ko zerga-tasa finkoa ezartzen du proposaturiko PFEZren erreformak honoko hauetarako:

- Kapital higigarriak sortutako diru-sarreretarako (interesak, dibidenduak...).
- Kapital higiezinak sortutako diru-sarreretarako (etxebizitza alokatzeagatik sarrerak).
- Kapital-irabaziek sortutako diru-sarreretarako (gainbalioak).

Horixe da, hain justu, erreformaren ardatz nagusietakoa:

- Pribilegiozko tratua ematen die kapital-errentei (zergaren mailakotasunetik kanpo uzten ditu), zerga progresibo baten oinarriko filosofiaren aurka eginez.
- Tratamendu berezitua (justifikaziorik gabea) ematen die lan-errentei eta gainerakoei.

Lotsagarria da, bestalde, errenta horiei guztiei ezartzen zaien tasa finkoa (% 18koa) lan errentei aplikatzen zaien tarifa baxuena (% 23koa) baino txikiagoa izatea.

Urtean 18.000 euro inguruko oinarri likidagarria dutenek % 18ko PFEZ tasa dute, batez beste,

Zerga Koordinazioko Organoak emandako datuen arabera.

% 18ko tasa finkoa jartzeak hau dakar: diru-sarrera horretatik gora zergaren mailakotasuna kentzea.

Errenta handienak dituztenak dira erabaki lotsagarri eta justifikaezin horren zuzeneko onuradunak.

BATEZ BESTEKO PFEZ-TASA, OINARRI LIKIDAGARRIAREN ARABERA. EAE. 2003

OINARRI LIKIDAGARRIA (€)	BATEZ BESTEKO PFEZ-TASA (%)
15.626 - 18.030	17,5
27.646 - 30.050	22,2
39.666 - 42.070	25,7
51.687 - 54.091	29,1
> 90.151	36,8

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoa

d) Atzerako pauso nabarmenak dakartza erreformak

Zergaren mailakotasuna murrizten duten aldaketak sartu ditu, eta ez ditu aldatu bidezkoak ez diren gai batzuk.

✓ BGAEen eta pentsio-funtsen tratamendua mantentzen da

BGAEen zergei dagokienez, ez dago aldaketarik. Beraz:

- Oso handia da zerga-arintzen duen ekarpen-maila. Zerga-arintzea oinarrian egiten denez, zenbat eta handiagoa errenta, orduan eta portzentaje handiagoa aurrezten da.
- Erreskatearen zerga-tratamenduak lehentasuna ematen dio kapitalari, errentaren gainetik. Pentsioen osagarri izatea da gizarte-aurreikuspenaren filosofia, eta honen aurkako da jokabide hori.

Hori guztia dela eta, goi-errentek egiten dituzte ekarpen handienak sistema horietara (bai portzentajeari bai zenbatekoari dagokienez). Datu ofizialen arabera:

- Urtean 90.000 eurotik gorako oinarria dutenen %71,4k egiten ditu ekarpenak BGAEetara (batez beste, 10.005 euro urtean). Egungo legediarekin, pertsona bakoitzak



urtean batezbeste 4.800 euroko zerga-arintzea burutzen du kontzeptu honetan.

- Urtean 18.030 eurotik beherako oinarria dutenen %32k egiten dute ekarpenik BGAEtara (batez beste, 1.261 euro urtean). Urteko batezbesteko zerga-arintzea 300 euro ingurukoa da. Errenta maila tarte honetan, BGAEtara ekarpenak egiten dituztenen %45,5a Gipuzkoakoa da (EAEko PFEZ aitortzen herena), Geraoren eragina dela eta.

✓ **Menpekotasun-asegurua**

Beste zerga-aringarri bat ageri da aldaketa honetan: menpekotasun-asegurua. BGAEei ematen zaien tratamendu bera izango du, eta urtean 8.000 euroko ekarpena egin ahal izango da, gehienez.

Estatu espainiarreko menpekotasun-lege proiektuan azaltzen da kontzeptu hau. Ikusten denez, besteen zaintza behar duten herritarrek laguntza eskasa jasoko dute aurrerantzean ere erakunde publikoetatik.

Ez dago onartzerik EAEko foru-aldundien jarra: menpekotasun egoeran dauden herritar guztiei horretarako zerbitzu publikoa eskaini beharrean, bide pribatutik menpekotasun-ase-

guruak egiten dituztenak mesedetzen ditu. Noski, normalean errenta handiko jendeak ekiten dio bide horri. Jokabide insolidarioa da baliabide publikoak (zerga-aringarriak) horretarako erabiltzea.

✓ **Etxebizitzaren tratamendua**

Etxebizitza erosteagatik zerga-aringarri handiagoak dakartzate neurri berriek, baina ez kolektibo zehatz batzuentzat (adibidez, bakarrik bizi diren 35 urtetik beherako pertsonentzat). Aldaketaren ondorioz PFEZ gutxiago ordainduko da, batez ere errenta altuak dituzten bikoteen kasuan.

Etxebizitza arloko zerga gastuak 511,9 milioita-koak dira EAEn 2006. urtean, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza gastu zuzenaren ia hirukoitza. Zerga-arintzeek ez die mesederik egiten diru gutxien irabazten dutenei; hortaz, gizartearen etxebizitza-premiei aurre egiteko modurik zentzuzkoena gastu publikoa da.

Erreforma honen ardatza aldiz, zerga-aringarriak handitzea da. Bitartean, onartu berri den etxebizitza-planak izoztu egiten du hurrengo ekitaldietarako etxebizitza-alorreko zuzeneko gastua.



Oharrak:

A series of horizontal dotted lines for writing.